

ORTZADARRA. Piezen letrak

Kantua:

- **Kattalin pottolin**

Kattalin pottolin zakuto,
piperrak badituzu saltzeko?
Katilu zaharrear irina,
Kattalin ipurdi zikina!

Tralalala, tralalala! Tralalalalalala!

Ipuina:

- **Bi lagun eta hartza**

Bi lagun basoan elkartu ziren. Aspaldi ez zutela elkar ikusten eta bata bestea, bada, agurtzen hasi ziren:

- A! Zenbat denbora zu ikusi gabe!
- Zer moduz zaude?
- Ondo, ondo. Eta zu?
- Ondo. Eta zu?

Bat-batean, haietako bat ziztu bizian zuhaitzaren puntara igo zen. Eta bestea harrিতa gelditu zen: “Baina zer gertatzen da? Zergatik doa zuhaitzaren puntara?”. Atzeko aldera begiratu zuen eta han ikusi zuen hartza. Orduan, berehala, pun! lurrera erori zen eta hilarena egin zuen. nonbait entzun zuen hilarena egiten bazuen, bada, hartzak ez zuela jango. Hartza poliki-poliki hurbildu eta usaintzen hasi zen, lehenengo hanketatik eta belarriraino. Hilda zegoela pentsatu zuenez, basoan barrena sartu zen berriro ere. Orduan, zuhaitzean zegoen laguna ziztu bizian jaitsi eta:

- Aizu! Hartzak zerbait esan dizu belarrira! Nik ikusi dut! Zer esan dizu?

Orduan besteak azkar-azkar pentsatu eta esan zion:

- Jakin nahi duzu zer esan didan?
- Bai, bai! Kontatu, kontatu!
- Arriskuan zaudenean, alde egizu arriskuan uzten zaituztenengandik!

Asmakizuna:

- Tripa, hezurra; zangoa, berdea eta zapela, gorria. Zer dela pents? (Gerezia)

Bakeak egiteko formula:

- Bake ttitt

Burlak:

- Mattin tilintin! Oilo beltzak errun din. Moxkun hartu eta eraman din!
- Mattin! ttin! ttin! Erreka bete zurgin. Tipula ta gatza, Mattin ipurdi latza!
- Errege ta sorgin, jan tzik lau sardina!

Irainak:

- Espantu zikin hori
- Azeri traste hau
- Mari matraka
- Bihurri hutsa

Bitxikeriak:

- Garai batean *berde* hitza ez zen existitzen eta *grisari urdin* erraten zitzaion.